

ELHEKGTA : Arte hiruakoko solas - bedeak -
 1 - Nafarroa Espainiako elgarri zena bere nahiz?
 2 - Zer zinemendikoa egin zuen Fernando-enrek?
 3 - Nafarroa zen Fernando-anagoa?

(II) ZER GINEN eta ZER GIREN.

(2)

Ohointza³ hori mendiez hunaindiko alderdian egin zuen, bainan ez harandiko edo Frantzia aldeko Nafarroan, Benabarran. Denek dakigun bezala Adur-eko uraundiraino hedatzen ziren gure eremuak, eta hango hiri nagusia zen Doniane Garazi. Oraino lauetan hogei urthez iraun zuen Nafarroako paska harek. Azkenian hura ere Frantziak eman zuen, bainan ez nolanahi, azkarki⁴ ihardoki ondoan.

Nafarroa behialako denboretan cskualdun guztienetan erresuma zen. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba gurekin zeuden, ik batetaratuak, odolkidekoekin elgartuak. Emeki emeki autarik berextu eta Espainiari eratziki ziren beren nahikundez.

Nafarroa Adin-erdia deitzen zen denboran erresuma azkar bat zen eta Europako gisan moldatua. Denbora heituan Europatarra edo girixtinoa gauza bera zen, izen beraz dei-thuak ziren.

Eta nun ziren hameka garren menderaino Europako edo girixtasunaren mugak, Frantziatik behiti? Nafarroako hego aldeko zedarrieta. Handik harat deitzen zuten *tierra de moros*: moru Afrikatarren lurak.

Nafarroa bethidanik girixtino kharitsua izanik, hamahirugarren mendean Frantziarekin elgantu eta yuan zen Yerusalem eta bertze *Lekhu sainduen* beretzerat, zeren eta Turko-en eskuetan baitziren, heien aztaparretatik kendu nahiz.

Izigarriko bide luzeak eta nekheak iragan ondoan itsaso eta lehorrez hurbildu ziren eremu hetarat. Nafartarrek at heltzeko beren errege Theobalt burian, borroka gudu gaitz bat izan zuten turkoekin *Tauro* mendiaren azpian, eta aitzina yuan ziren.

Bainan azkenian Frantses eta Nafarrak etsituak, etsaia ezin garaituz, itzuli ziren, sinets ez ditaken oinhalaze pairatu ondoan. Gosete, egarrite, sukharrak, eta ezin erranezko latzkeria guzietarik.

Bigarren pidaia bat ere egin zuten berantago, bainan deus ardietsi gabe, eta itzultzian hil zen han Nafarroako erregea, Theobalt bigarrena.

Pidaia hantan, Nafartarrak, etxeratekoan, Grecia-n sartu ziren eta han egon berrogoita hamar urthe, Atenas hiri nagusitik yabetu ondoan.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31 Denek dakigun 32 Detaken.

33 Zitak.

34 Dakigun, dakezkiegen. Imp.

31 JAKIN INDICATIF Present.

O.S

O.P

Nik daket = je le suis

Daghet = je les suis

Hik dake/n : tu le suis

dakik/n = tu les suis

Zuk dakezu : vs le savez

dazkezu = vs les savez

Harek dake : il le sait

dazke = il le sait

Gurek dakegu : ns le savons

dazkegu = ns les savons

Ziek dakegue : vs le savez

dazkegue = vs les savez

Hiekk dakte : ils le savent

dazkite = ils les savent

32 IZAN - Potentiel Present.

Ni ijan naitake (mitake) = je peux être

Hi " haiteke (mitake) = tu " être

Zu " zaitezke

= vous pouvez être

Hura " daitake

= il peut être

Guru " gaitezke

= nous pouvons être

Ziek " zaitezkete

= vous pouvez être

Hek " daitezke

= ils peuvent être

33 IZAN - Imparfait.

Ni ijan ninteken = je pouvais être

Hi " hainteken = tu pouvais être

Zu " zaintezken = vous pouviez être

= il pouvait être

Hura " ziteken

= nous pouvions être

Guru " ganteghen = vous pouviez être

= il pouvait être

Ziek " zaintzibeten = vous pouviez être

= il pouvait être

Hek " zitezken = ils pouvaient être

= ils pouvaient être